

## HARIZMENDI, VINSON ETA ABAR

Amazazpigarren mendean euskal-literatura Iparraldekoen artean alazoko neurrian landu zala gauza jakina da. Ordukoak dira Axular andia eta Tartas. Prosaz idatzi ebenen artean urtenen eta ezagunenak dira. Ordukoxeak doguz bertsoa landu eben beste bost idazle. Oihenart, Etxeberri Ziburukoa, Argaiñarats, Harizmendi eta Gasteluzar. Bost idazleok bertsoegiñan maixu andien trebetasuna erakutsi eben. Oihenart lege-gizona da; baiña asti-emongarri eta lan aztunagoen aringarri, Musen artera igesaldiak egiten atsegin izaten eban. Bertso trinko, ondo josien eta ulertzen ain errez ez diranen egille dogu bera.

Beste laurak eleizgizonak dira. Erriarentzat idatzi eben, eta ez eskoladunentzat, Oihenartek egin eban lez. Euskera gozo ulerterreza darabille. Gasteluzarrek ez, beste irurak, Etxepare zarrak lez, ia beti neurri bat artu eben: *Tantun ergo* eleizkantaren neurria, edo ta *Milla urte igarota urak bere bidean* kantarena.

Gaur idazle guztiok, aspaldiko urteetan aitzurik edo bazterturik egon ondoren, biztualde ederra izan dabela ikusten dogu. Joan dan mendetik ona Oihenartek bein eta barrero ikusi dau argia. Etxeberri-ren *Noelak* eta *Manuala* oraintsutan argitaratu dira. Beste irurak, Argaiñarats, Harizmendi eta Gasteluzar osoan galtzeko arriskutan egozan: baiña Vinson-ek eta Hordago-k eta bestek egindako irartaldi barriai esker, arrisku ori uxatu da eta oraindio luzaroan bizirik irauteko dagoz.

Harizmendi dogu, bear bada, idazle guztion artean, irartaldi

orreitan txartoen urten dauana, eta, beraz, gitxien edo txartoen ezagutua. Zergaitik? Vinson-ek bigarrenez argitaratzean, al izan eban eran atera ebalako.

Hordago-k gure egunotan egin dauan edizioak Vinson-enaren aje guztiak dakaz. Vinson-enaren ber-argitaldia baiño ez danez, Hordago-renak bestearen uts eta akats guztiak oso-osoan sartu ditu, ezer aldatu barik. Vinson-enean Harizmendiren testoa eta beste norbaitena nastean daukaguz. Asko ez dira oindio konturatu naste orretaz, laster ikusiko dogunez.

Zer egin eban Vinson-ek?

Vinson-*i* asko zor deutso euskal-literaturak. Lan andia egin eban euskerazko liburu zarrak argitaratzen eta euskalzaleen artean zabaltzen. Euskeraren arrak jo eban bein barruan, eta arrezkero bere bizi guztian jarraituko dau gure izkuntzaren ainbat arlo lantzen: folklore, gramatika, bibliografia, testo zarrak argitaratzea eta abar. Berari zor dauzagu, Sylvain Pouvreau zanaren manuskrito batzuk eta Argaiñaratsen eta Harizmendiren lanak ezagutzea.

Luzaroan ibilli zan Harizmendi onen liburuaren atzetik. Ez zituan osorik inon aurkitzen. Aurkitu zituan zati guztiak batuta be, ez eban dana osotutea lortzen. Orraitio, bein, eskuz egiñiko kopia bat eskuratu deutsoe, eta kopia orretatik aleginduko da utsune batzuk beteten. Eta orra inprentako lana amaituta daukala, Dogson ospetsuak (euskeraren arrak joa au be), jakitun ipiñi dau badala Londresen Harizmendiren ale bat osoa. Bertatik kopia bat eskatu eta andik asi da falta zituan orrialdeak osotzen. Baiña ediziñoa osatzeko manuskritotik artu zituan zatiak, orain ikusten dau ez datozela Harizmendirenakaz bat. Antza, kopia-tzaillea ez zan kopiatzaille utsa, eta Harizmendiren testoa aldatu egin eban edo berak aren liburua osorik euki ez, eta berak bete zituen utsuneak, eta liburuak falta zituen zatiak euskeraz jarri. Vinson-ek besterik be ikusi dau gero, manuskrito euskerea eta Harizmendi berarena ez dirala euskalki berekoak, ez dirala bardiñak.

Orduan zer erabagi dau Vinson-ek? Inprentako lana ez dau

errekara botako. Dagoen-dagoenean itxiko dau. Dirurik asko eralgi dau ordurarte beretzat irabazirik ez dakarren liburu orretan. Zer egin? Irarrita daukan liburuari azkenean eraskin bat ezarriko deutso eta an sartuko ditu liburuaren barruan ez datozen edo oker datozen zatiak, non sartu bear dan azalduta. Eta eraskin orretan datoz atarian sartu bear zan Gotzain jaunaren baimena, bigarren teologoaren on-eretzia, Andre Dena Mariari dedikazioa, eta ainbat salmo, kanta eta irakurgai. Or dator bigarren liburua (Gai premienez), eta liburuaren azala bere egiazko tituluarekin, eta ez Vinson-ek gitxigora beraka asmatu ebanarekin.

Londresko liburu onen aurrean, Vinson, itzaurrean eralgitako eretzi batzuk zuzendu bearrean aurkitu da. Liburua agertu zanco urtea ez da 1658koa, teologo baten aprobazinoarena baiño; bigarren teologoarena be, 1658koa da; baiña Gotzainaren baimena, 1659koa; eta liburua inprentatik 1660an urtena da. Argi dago Baiona aldean orduan gauzak astiro eta ondo egitea nai ebela. Eta ez dago Harizmendik bere bizian edizio bi egin zituela asmatzerik, Aita Onaindiak azkenengo OLERTI-n egin dauan lez. Vinson-i ez jakon olangorik ezer burura etorri. Azalean edizioaren urtetzat ekarrena (1658), geró azkenean zuzendurik dakar 1660.

Harizmendik mērezi leuke, nik uste, edizio obe ta zeatza-gorik. *Hordagok* ez deusku mesede txikia egin Vinson-ena berargitatu, baiña irakurleak ez dau aitzu bearoko emen esan dana. Vinson-ek egindako nastea kendu barik dago or, eta bati baiño geiagori oker-ulertuak ekarri deutsoz. Esaterako, gure literatura-ren antologiak egin dabezan Lafitte eta Aita Onaindiari. Vinson-ek manuskritotik kopiatuta emon euskun *De profundis* euskerazkoa Harizmendi-rena dalakotzat, emon deuskue, zeifēna dan ondo begiratu barik. Harizmendirena eraskinēan datorrena da eta ez liburuaren barruan datorrena.

Harizmendiren liburu au eskuz esku kopiatan zabaldu izanak abegi ona izan ebala diñoskula uste dot. Gauza bera jazo zan Argaiñarats-en *Deboten Brebiarioarekin*; onen eskuzko kopia bi aurkitzen dira Donostian Julio Urkijo-ren Bibliotekan. Eta gau-

za bera ikusten dogu emen: eskuzko kopiak ez datoz beti bat inprentakoarekin. Lekuan lekuan, antza danez, bakotzak bere errialdeko euskerara itzultzen zituen, gogotsuago irakurteko edo.

Orain *Hordago*-k bere edizioarekin egin deuskun mesedea be ez dakit nik askok bear dan lez eskertu dauanik. Gure artean ez dau aitamen andirik izan. Idazle onek gure gazteren batek bere tesinatxoa egiteko noz artuko ete dauan begira egon bear ete dau?

Oraintsu Aita Onaindiak atera dau beintzat plazara. Olerkari onen aurkezpena egin deusku eta bertso-sailla eskiñi deusku, dituen bertsoen neurketa zcatza azpimarratuz eta olerkariaren euskera gozo errez garbiari goresmenak eginez. Len esan dogunez, ez da egia 1658 eta 1660n argitaraldi bi izan zituelakoa.

Neurrian darabillan zeaztasuna goratzerakoan, orraitio, uts txiki bat aurkitzen deutso bein; 112 garren salmoan da. Onela ei diño:

Haurrak, lauda ezazue  
gure Jainko Jauna.

Poto egin ei dau or gure olerkariak: silaba bat gitxiago, bear eban baiño. Baiña utsa ez da Harizmendirena, bai kopiatzaillearena. Harizmendik onela dakar.

Haurrak, lauda ezazue  
gure Jainko zuzena:  
lauda bihotz onez beti  
Jainko hunen izena.

Ez da or pоторik. Neurri on eta oskidetza beteko bertsoak dira. Egia baiño ez da, askotan Omero bera be loak artzen daua, baiña loak artu dauana emen kritikilaria da.

Gero, salmoen estrofak lerro bitan ipiñi diranez eredutzat ekarri diran salmo-pusketan naste anditxoa sortu da OLERTI-n. Bost salmotan, estrofak, ahapaldiak atzekoz aurre urten dabe.

Gure irarkoletako langille askori jazoten jaken utsa da ori. Lerro batari jarraitu bearrean, sarri joaten dira okerreko lerroa. Gaste-luzar idazlearen EGIA KATHOLIKAK argitaratzerakoan, ondo ikusita daukat. Bein eta barriro hutsak zuzendu eta zuzendu ibilli bear eta, azkenez, bertsoen bat egokion lekutik kanpo gelditu ez ete zan nago. OLERTI-n agertu dan artikuluan bost salmotan jazo da olango nastea. Eta salmo-zati bat manuskritotik artua da, ez Harizmendi berarena.

Edizio oberik ez dogun bitartean, irakurleak kontuz ibilli bearke dau Vinson-ek eta Hordagok atera deuskuen onekin, bakotxari berea eta Harizmendiri Harizmendirena emoten jakiteko.

L. Akesolo



**ESTUDIO  
FOTOGRAFICO**

**ARGAZKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14      Trañabarren-Bloque, 1-4-13  
Urrut: 673 0509      **Matierna - Abadiano**  
**AMOREBIETA**